

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



## ■ HERNANI SAGARDOA

### Txantxangorriko izena eman daiteke

Txantxangorri kirol elkarteak urtero bezala egiten duen sagardo lehiaketarako izena emateko epea ireki du eta gaurtik aurrera edozeinek eman dezake izena. Txapelketa irailaren 20an, ostirala, izango da eta aurtengo edizioa 36garrena izango da. ||

## ■ HERNANI PELOTA

# Denboraldia hasteko prest pelotariak

Aurreko denboraldia amaitzearekin ia batera hasten da berria. Euskal Jaietako Torneoan, Trinitate Plazan, infantil eta kadeteetan nagusitu dira Manex Martin, Oier Alegria eta Xabier Apaolaza.

UDARAKO azken Torneoa amaitu berri da, Euskal Jaietako Donostiako Trinitate plazan, eta ia denborarik gabe aste honetan bertan hasiko da denboraldi berria Gipuzkoako Txapelketaren hasierarekin.

Amaitu berri den denboraldia ezin hobeto bukatu zuten hernaniarrek. Infantiletan Manex Martin eta Oier Alegriak txapela jantzi zuten Pagazpeko Zabaleta eta Iraetari 18-4 irabazi ondoren. Kadeteetan Xabier Apaolazak ere, Alde Zaharreko Sorondorekin batera, txapela jantzi zuen Zapirain eta Naldaizen aurka.

Denboraldian zehar hamar txapela eta hogeita final jokatu dira.

### Bederatzi talde eta 26 pelotari Gipuzkoakoan

Eta asteburu honetan Gipuzkoako Txapelketari emango



Xabier Apaolaza, Manex Martin eta Oier Alegriak denboraldiko azken txapelak irabazi zituzten Donostian.

zaio hasiera, baina hau 2019-2020 denboraldiko lehenengoa da. Bederatzi bikotek eman dute izena CD. Hernani taldeetik. Bederatzi talde ariko

dira eta 26 pelotari. Kadeteetan hiru talde eta sei pelotari, jubeniletan sei pelotari eta bi talde eta senior edo nagusietan lau talde eta hamaika

pelotari. Maila altua dago txapelketan eta helburu nagusia ahalik eta talde gehien Euskal Herriko txapelketara sailkatzzea da. ||

Argazkia: CD. HERNANI

## ■ HERNANI URTEKARIA

### Gaur aurkeztuko da urtekaria

Hernani ikusiyak erakusketaren amaierarekin batera, Hernani 2018/19 urtekaria aurkeztuko da gaur, Biterin bertan 19:30etan. Hernani urtekariaren 25garren edizioa da aurtengoa, eta horregatik ale berezi bat prestatu da. ||

## ■ EREÑOTZU ANTZERKIA

### Sarrerak salgai, 'Erlauntza'-rako

Erlauntza antzezlanaren ostiralean ikusi ahal izango da, 22:00etan hasita, Ereñotzuko frontoian. Sarrerak salgai daude oraindik 10 euroan, Ereñotzuko Irrintzi tabernan edota Auzo Udalean, eta Biteri kultur etxean. ||

## ■ EREÑOTZU BERRIKETAN

### Gaur hasiko dira berriketan saioak

Berriketan koadrilaren bueltan elkartzen dira 65 urtetik gorako ereñotzuarrak. Udararen etenaldia izan dute, eta gaur hasiko dira berriro ere elkartzen. Asteazkenean daukate zita, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara. Doan da, ez da izena eman behar eta auzo etxera azaltzea nahikoa da. ||

## ■ EREÑOTZU IKASTAROAK

### Aerobik eta yogan izena eman daiteke

Urritik, yoga eta aerobik ikastaroak antolatu dira. Astearte eta ostegunetan izango da yoga eta astelehenean eta asteazkenean aerobik. Ostiralera bitarte izango da aukera izena emateko Auzo Udalean. ||

## ■ URUMEA BERTSOLARITZA

# Sarrerak salgai, bertsolari txapelketarako

Gipuzkoako Txapelketa larunbatean hasiko da Oñatin, 17:00etan, eta bertan abestuko du Xabier Mujika Izagirre hernaniarrak. Sarrerak 'www.bertsosarrerak.eus' webgunean eskuratu daitezke.

PASA DEN larunbatean Asteasuko plazan bildu ziren larunbata honetan hasiko den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako parte hartzaileak. Herriko alkate Pili Legarrak eta Gipuzkoako Bertsosale Elkartearen lehendakaria den Saroi Jauregik egin zuten ongi etorria. Eta ekitaldi laburrean txapelketako sintonia eta aldizkaria aurkeztu zituzten.

Gipuzkoako Txapelketa Oñatiko Santa Ana Antzokian hasiko da arratsaldeko 17:00etan eta bertan Xabier Mujika Izagirre hernaniarra ariko da.

Bigarren saioa igandean izango da Amasa-Villabonako Gure Antzokian, 17:00etan. Seina bertsolari ariko dira saio bakoitzean.

Sarrerak salgai daude irailaren 2tik eta [\[www.bertsosarrerak.eus\]\(http://www.bertsosarrerak.eus\) webgunean. Aurrez agortzen ez badira, txarteldegian ere eskuratu ahal izango dira larunbatean eta igandean, 16:00etatik aurrera.](http://www.bertsosar-</a></p></div><div data-bbox=)

Txapelketako sintonia Don Inorrez musika taldeak sortu du eta irailaren 14tik abenduaren 14ra bitartean saioz saio entzungo da Gipuzkoan barrena. Lotura honetan entzun daiteke: [\[zale.eus/eu/gipuzkoa/gipuzkoako-bertsolari-txapelketa/informazioa/sintonia\]\(http://www.bertsosarreale.eus/eu/gipuzkoa/gipuzkoako-bertsolari-txapelketa/informazioa/sintonia\).](https://www.bertsos-</a></p></div><div data-bbox=)

Txapelketako aldizkaria ere banatu zen aurkezpenaren amaieran. Gipuzkoako Bertsosale Elkartearen bazkideak jasotzen ari dira etxean eta saioetan ere eskuratu ahal izango da. [www.bertsosale.eus](http://www.bertsosale.eus) webgunean ere deskargatu daiteke. ||

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

**KIMERA**  
Fisioterapia - Osteopatia

[www.kimerafisioterapia.com](http://www.kimerafisioterapia.com)

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko

**GAUR** Egunaren lehen partean tarteka euria egingo du. Eguerditik aurrera, ordea, atertu eta lainoak gubituko dira. Iparraldeko haizea ibiliko da eta tenperaturak gora egingo du. **Min.14° / Max.19°**

**BIHAR** Behe-lainoak dezente iraun dezake, baina eguna argia izango da, bereziki eguerditik aurrera. Iparraldeko haizea ibiliko da eta tenperaturak igozten jarraituko du. **Min.13° / Max.22°**



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



## HERNANI JABETZE ESKOLAK

# Jabetze Eskolei hasiera emateko Bihotxen kontzertua, Leokan

Ostiralean ekingo zaio emanaldiari, 22:00etan, eta euria eginez gero astebete atzeratuko litzateke hirukote hernaniarraren musika saioa.

JABETZE Eskolak ere martxan jarriko dira eta hasteko, urtero legez, kontzertu bat antolatu da ostiralean 22:00etatik aurrera. Emakumeentzako Jabetze Eskolei hasiera emateko, antzina emakumeen topaleku, lanleku eta hizketa-txoko izan zen espazioan bertan eman nahi zaie berriro ere protagonismoa emakumeei, Leokako labaderoan.

Txoko hori emakumeentzako berreskuratuta, urteetan haiek egindako lan ikusezina omentzeko aukera baliatu nahi dute.

Aurtengoan hernaniarrez osatutako hirukote bat izango da protagonista, Bihotx: Gema Ines Murillo, Lara Mitxelena Martín eta Ixiar Jauregi Loiarrek osaturikoa.

### Txalaparta soinuak

Euretariko bakoitzak musikan ibilbide desberdina izan badu ere, hiruek musikarekiko zale-tasuna konpartitzen dute. Txalaparta izango da emanaldi honetako protagonista na-



Bihotx taldeak txalaparta erabiltzen du kontzertuetan.

gusia. Euskal Herriko musikaren oinarri den tresna honek, denboran zehar izan duen garapena azaltzea du helburu emanaldiak. Beste instrumentu, dantza eta kantuekin uztartuz, umorea ardatz, gozotasun momentuak biziaraziko dizkiete hurbildutakoei.

### Portu eta Elizatxora doan bidea moztuta bi orduz

Kontzertuak irauten duen bitartean Portu eta Elizatxora doan errepidea moztuta egon-

go da, gaueko 21:45etatik 23:30ak arte (kontzertua bukatu arte).

Euria eginez gero, hurrengo ostiralera arte, irailaren 20ra arte, atzeratuko da.

Jabetze Eskolen udazkeneko tailerrak, eskaladarekin hasi dira, eta urrian, azaroan eta abenduan jarraituko dute egitarau zabalarekin. Plaza feministan, 943 33 70 17 telefono zenbakian edo [berdintasuna@berdintasuna.eus](mailto:berdintasuna@berdintasuna.eus) helbidean eman daiteke izena. ||

## HERNANI ASVIAMIE

# Bi langileren minbizien sorrera Orbegozon dagoela aitortu dute

Gizarte Segurantzak ebatzi duenez, José V.C.ri ezintasun osoa onartu zaio eta azaroan hil zen Felipe D.M.ren alargunari dirulaguntza igoko zaio.

GIPUZKOAKO Gizarte Segurantzaren Institutuak aitortu berri du Pedro Orbegozo-Acenoren lan egindako bi langileren minbiziak lan arloan duela sorrera. Horietako langile bat hilik dago eta besteak biriketako kantzerra garatu du.

Honela, 79 urteko José V.C.ri ezintasun osoa onartu zaio, bere biriketako minbizi amiantotik, ke metalikotik... eratorria dela. Orbegozon 1963-1992 urte artean lan egin zuen arduradun bezala laminazio trenean. Beraz, bere pentsioa haundituko da.

Bestetik, Felipe D.M.ren alargunaren eskaera onartu du gaixotasun profesiona-

ren dirulaguntza jasotzeko. Azaroan hil zen langile urnietarra, birika eta bronkioetan adenokarzinoma bat garatu eta gero. Lan arloan minbizi sortzen duten eragileekiko esposizioaren ondorioz gaixotu zela ebatzi du, 1970-1992 urteen artean laminazio eta zuloan aritu izanagatik.

### «Osakidetzak ez zuen berriz ere 1299/2006 dekretua bete»

Asviamiek salatzen du bi kasuetan Osakidetzak 1299/2006 dekretua ez zuela bete, hau da: «lanean sortutako biriketako gaixotasuna izan zitekeenaren jatorria susmatu gabe, gutxietsiz kantzergenoko

ekiko esposizioa fundizioan».

Osalanek adierazi du lan-tegia desagertu den arren eta Acenorren garbitasun neurgailurik ez dagoen arren, ikerkuntzaren ondoren «oso probablea da silizearekiko, amiantoarekiko eta ke metalikotikiko esposizioa edukitzea lanean».

Bi kasuetan kalte ordain eskaerak egingo dira segurtasun eta garbitasun legedia ez betetzeagatik.

Asviamie (Amiantoaren biktimen elkarte euskalduna) pozik agertu da mantso baina minbiziaren jatorrietako bat amiantoa dela ikusarazten ari delako. ||

## HERNANI KONTRAKANTXA



Pablo Hasel rapero kataluniarra, eskuinean, zen hizlarietako bat

### Erresistentzia nola antolatu azaldu zen

Erresistentzia antolatu mahai ingurua antolatu zen larunbatean Kontrakantxan. Erresistentzia eta honen ondorioak beren azaletan bizi izan dituzten 4 militanteren bizipenez lagunduta hausnarketarako eta eztabaida politikorako aukera egon zen. ||

## HERNANI 69AN JAIOTAKOAK

### Urumean ibilitakoek bazkaria

Bazkaria antolatu dute 1969an jaio eta Urumea ikastolan ibilitakoek, azaroaren 9rako. 50 urte betetzen dituztela eta. Interesa daukanak 660 50 92 44 zenbakira jo dezake. Izena emateko azkeneko eguna: urriak 6. ||

## HERNANI 47AN JAIOTAKOAK

### Berriz elkartzeko bazkaria, 47koek

Azken urteetan bezala, 1947an Hernanin jaiotako gizon-emakumeak elkartzeko bazkaria antolatuko da irailaren 28rako, Suharrin. Izena eman ahal izango da, telefono hauetara deituta: 656 721 678 (Pepi), 664 102 764 (Anun) edo 638 082 041 (Javier). ||

## ASTIGARRAGA MUSIKA ESKOLA

### Klaseak bihar hasiko dira musika eskolan

Ikasturte berriari hasiera emateko prestatzen ari dira Norberto Almandoz Musika Eskolan. Klaseak bihar, ostegunean, hasiko dituztela gogorarazi dute. ||

## HERNANI KANTUZ MUSIKA ESKOLA

### Gitarra ikastaroetarako matrikula zabalik

Udaleko harreran gitarra ikastaroetarako izena eman daiteke Kantuz musika eskolan. Iazko ikasleek ostiralera arte eman dezakete eta berriei irailaren 16tik 20ra. Informazioa 943 33 70 41 telefonoan. ||

## HERNANI MUSIKA ESKOLA PUBLIKOAK

### Klaseak bihar hasiko dira musika eskolan

Astlehenean eman zioten hasiera ikasturte berriari. Aurreko ikasturtean antzera 500 matrikula inguru dituzte Heranin Musika Eskola Publikoan. Honekin batera hainbat instrumentoetan oraindik tokia dago: klarineta, akordeoia, txistua eta saxoa hain zuzen. ||

## IRAGARKI MERKEAK

**Arratsaldetan umeak zaindu edo eta etxeko lanak egingo nituzke.** Esperientzia handia eta tituluduna. Informeak ere badituzte. Deitu: 655 516 013

**LOGIKALINE enpresak INFORMATIKO-PROGRAMADORE lanpostua bete behar du.** Lana Abaltzisketan egiteko da. Kontrata: 6 hilabete, hasteko. Lanaldi osoa. Bidali c.v. [rrhh@logikaline.com](mailto:rrhh@logikaline.com) edo deitu 943318606.

**LOGIKALINE enpresak HIRU TELEOPERADORA LANPOSTU bete behar ditu.** Lana Heranin egiteko da. Kontrata: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. Bidali c.v. [rrhh@logikaline.com](mailto:rrhh@logikaline.com) edo deitu 943318606.

**Irigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)